

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

662

EBAZPENA, 2018ko urtarrilaren 31koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, argitara ematen duena larrialdien eta babes zibilaren arloan bereizgarri berdeko merezimendu-domina jaso dutenen zerrenda.

Segurtasuneko sailburuordeak larrialdien eta babes zibilaren arloko bereizgarri berdeko dominak emateari buruz 2018ko urtarrilaren 26an emandako ebazpenetan xedatutakoari jarraikiz, eta Eusko Jaurlaritzaren larrialdien eta babes zibilaren arloko sariei buruzko azaroaren 21eko 253/2017 Dekretuaren 12.2 artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta, larrialdien eta babes zibilaren arloko sariak baloratzeko Batzordearen ebazpen-proposamena entzun ostean, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Segurtasuneko sailburuordeak 2018ko urtarrilaren 26ko Ebazpenaren bidez larrialdien eta babes zibilaren arloan bereizgarri berdeko merezimendudomina ematea ebatzi duela ondoren zehazten direnei:

- Maite Pascual.
- Unai Zubizarreta.

Bigarrena.– Azaroaren 21eko 253/2017 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, zehaztutako horiek domina bana jasoko dute jendaurreko ekitaldian, saria jasotzeko eginiko merezimenduak eta erakutsitako dohainak goraiatzeko.

Hirugarrena.– Argitara bedi ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 31.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.